

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## "Txapas", Goenkaleko pertsonaia, gogoan

Joxe Mari Berasategirekin biziberritu ditu Aiurri astekariak Euskal Telebistako telesail ezagunaren garaiak / 2-3

AIURRI

## Iristear da Gau Beltza

Hamabost egun barru euskal kutsuko festaren edizio berria ospatuko da / 10-11

**In Memoriam:**  
**Ixidro Elorza**  
**Gorrotxategi**  
**Egapeko irakaslea,**  
**gogoan / 4**

**150.000 euro**  
**zertara bideratzeko**  
**parte-hartze**  
**prozesua zabalik da**  
**Urnietan / 14**

**GAU BELTZA**  
**URRIAK 31**  
**ANDOAIN**

**TALOA**  
Txartelak 5 eurotan salgai,  
urriaren 21etik aurrera  
Urratsen eta Keinun.

**KAPELA**  
Ez utzi azken ordurako.  
Eskura itzazu kapela eta  
zapia Keinu dendan.

**MARVENI**  
**S2 SALKIN**  
bertalde bertara  
**bastero**  
MULTIGARA  
**ANDOAINGO UDALA**  
**euskaltzainen**  
topagunea  
**AIURRI**





Joxe Mari Berasategi hamaika urtez aritu zen Goenkalen. AIURRI

# "Txapas pertsona ezaguna zen askorentzat, etxekoa bezala"

**JOXE MARI BERASATEGI "TXAPAS" GOENKALE TELESAILAN**

Arralde herrian kokatu zen telesaila 21 urtez, Joxe Mari eta Martin, Lasa anaien arteko liskarretik hasita, makina bat pertsonaje eta istorioentzat

**Xabier Lasa** ANDOAIN

30 urte igaro berri dira *Goenkale* telesaila ETB1ko pantailan lehen aldiz zabaldu zenetik. 1994ko urriaren 3an ikusi ahal izan zen lehen atala, eta 2015eko

abenduaren 18an, berriz, kito egin zuen, 3.708. atala, azken atala emititu ostean. Izan ere, ikusle kuotaren gainbehera nabarmena jasan zen, urtez urte: lehenbiziko denboraldietan ehun

milatik gora ikusle kuota izate-tik, hamar-hamabost mila izatera jaitsi zen.

Arralde herrian kokatu zen telesaila 21 urtez, Joxe Mari eta Martin, Lasa anaien arteko lis-

karretik hasita, makina bat pertsonaia eta istorioentzat, konta ezin ahala egoera komiko zein dramatikoentzat eduki zuen tokia telesailak, 21 denboraldietan. Joxe Mari Lasa (Mikel Garmendia) eta Maria Luisa Galar-diren (Kontxu Odriozola) Boga Boga tabernan bezainbat sekuentzia errodatu ziren Mikel Mendaraz *Pelos* (Iñaki Beraetxe) eta Kepa Amutxastegi *Txapas*-en (Joxe Mari Berasategi) Varsovia tabernan.

*Goenkale*-ren eskutik 11 urtez euskal etxeetako telebistetan gauero gertuko aurpegia bihurtu zen Joxe Mari Berasategi Iriondorekin (Urnietan, 1964) egin dugu hitzordua Elkarleen Etxeko tabernaren terrazan, telesailaren hasieraren 30. urteurrena aitziatzat hartuta.

**Nola, noiz... sartu zitzaizun antzerkirako arra?**

Lurdes Iriondo izeba nuen. Umea nintzela, sumatuko zuen banuela etorri komikoa, eta pentsatzen dut hark bultzatuko ninduela. Xabier Lete eta biek Buruntza antzerki taldea osatu zuten Urnietan 70ko hamarkadan, eta ni haiekin pozez txoratzen! Urtetan pittin bat aurrera, gogoratzen naiz *Gabon Txirrita* antzezlanean,

kaleko propaganda-banatzaille gisa jarri nindutela.

**Eta erabakia hartu, modu profesionalean aritzeko?**

OHOko ikasketak Egapen eta Andoaingo Aita Larramendi ikastolan egin ondoren eta Heraniko institututik igaro ostean, oso argi eduki nuen antzerki-gintzatik jo behar zuela nire bizitzak. Horrela, Madrilgo William Layton antzerki laborategira abiatu nintzen, hiru ikasurteko ikasketak egitera. Handik itzulita, Jaurlaritzak Donostian ireki zuen Antzerki arte dramatikoetako eskolan matrikulatu nintzen. Egiiazki, Antzerki, ETBren sorreran ekoizten hasi ziren zenbait telesailen harrobi bilakatu zen, eta 90eko hamarkadan barrera, *Goenkale*-rako ez ezik beste zenbait telekomedietan (*64, Bi eta Bat, Jaun eta Jabe*) ere parte hartzeko deitu zidaten. Umore ukitukoak ziren denak; Jaun eta Jabe-n, esate batera, ertzain jator bezain katxondo baten papera egiten nuen.

**Goenkale-n Txapas pertsonaiaren azalean sartuta aritu zinen urtetan.**

Hamaika urte! Oso oroitzen politak gordetzen ditut biziadik hartatik. Gogoan dut nola deitu zidan Andu Lertxundik, telesaila hasi eta agudo; proba egin, eta barrura! Nonbait, lehenbizilehenbiziko ataletik, aktore printzipalentzat ondo definitu zuten Boga Boga taberna, topagune gisa; gazteagoentzat, berriz, Varsovia taberna jarri zuten, baina, tabernaririk gabe! Hortxe kokatu zuten nik antzeztu beharreko pertsonaia.

**Sinpatikoa zen Txapas.**

Beti pronto ateraldi umoretsuekin eta ziria sartzeko, hala zen! *Goenkale*-ko gidoilari-taldeak lan bikaina egiten zuen, baina egoerak eta elkarrizketak eguneroko osatzea eskatzen zuen telesaila zeukaten eskuartean, eta esango nuke normala izan zela inprobisazio puntu batekin jokatu behar izatea eta pertsonajeak poliki-poliki gorpuzten joatea. Horrela, *Txapas*-en kasuan, iruditzen zait ukitu fribolo batekin karakterizatu nahi izan zutela hasieran, eta nik proposatuta, nortasun sendoagoa eduki zezan bideratu zutela.

Urtetan eta ataletan aurrera, telesaileko arduradunek hiru hilabeteko aktoreak biltzen gintuztenean, eta gidoiak hurrengo hilabeteetan nondik nora joko



zuen azaltzen zigitenean, nik komentatu izan nien *Txapas*-en inguruan trama sumatzen nuela faltan. Betiko egoera barre-garriak eta solasaldi bizi eta informalak sartzen segitzen zuten, eta baita ere, Lutxi bikotea eta biok ume bat adopzioan hartuta jarri gintuzten, trama txikia sortuz horrela. Baina fundamentuzko trama bat de-seatzen nuen *Txapas*-entzat; horretarako prestatuta nengoen behintzat. Kontua da garbi zeukatela rolak nola banatu behar ziren telesailean, eta hori zintzo onartzea zegokigula aktoreei.

**Maiz aipatu izan da *Txapas*-ek Mikel Pelos-ekin edo Lutxi Porrutxo (Itziar Urretabizkaia) bere bikotearekin egiten zituen solasaldiak zeinen naturalak eta biziak ziren; euskara estandarren eta kolo-kialaren eredutzat har zitezkeela.** Halako elkarrizketak gidoilarien meritua ziren. Geure aldetik, aktore-lanak graziarekin egiten saiatzen ginen. Ondo ikasten nituen irakurtzeko aurrez pasatzen zizkiguten elkarrizketak, eta *Txapas*-en larrutan barru-barruraino sartzen saiatzen nintzen.

Hika modurik naturalenean jarduten genuen, eta gozatu ederrak hartzen genituen, egoerak benetan bizitzen ariko bagina bezala; interpretazioarekin betebetean asmatzen ari ginenaren sententzia edukitzen genuen. Egia esan, ohituta nengoen hikan aritzea, hala jardun izan bainuen txikitatik lagunekin eta eskolan. *Goenkale*-n, gehiago kostatu zitzaidan emakumeekin, izan ere, beti zuka egiteko joera eduki nuen. Eskola polita izan zen niretzat, alde horretatik.

***Goenkale*-ren ibilbidearen erdian parte hartu ostean, ezkutatu egin zinen halako batean.**



"Txapas" Varsovia tabernan, ziria sartzeko pronto, ziurrenik. GOENKALE

Bai, hasi bezala ezkutatu zen nire pertsonajea. Ez zen heriotzarik, hilketarik, ihesaldirik, espetxeraterik... gertatu *Txapas* derrepente zergatik desagertu zen azal zezakeena, beste zenbait pertsonajeekin egin zen bezala.

**Etxe askotan sartu zinen pantailaren eskutik, gauero-gauero. Nola eraman zenuen pertsona publiko bilakatu izana?**

*Txapas* pertsona ezaguna zen askorentzat, etxekoa bezala, eta iritsi zen une bat gainezka egin

zidala fama horrek. Jazarpen-komplexua ere sentitzen hasi nintzen, mundu guztia niri begira balego bezala sentituz. Halako batean, baina, barneratu behar izan nuen telesail ospetsu bateko aktore izateak bere faktura zekarrela, eta alferrik zela jendeari bakean uzteko eskatzea. Onean onartu beharra zegoen. ETBren kontra zerbait kritikatzeko zeukatenak edozein une eta egoeratan hurbiltzen zitzaizkidanean ere, pazientziarekin onartu behar nituela, alegia.

**Urteak igaro dira, baina euskal jende askoren oroimenean itsatsita geratu dira *Goenkale*-ko zenbait pertsonaje; batzuk batik bat, Maria Luisa, Joxe Mari, Gina, Margari, Xatur, Pelos... baita zurea ere.**

*Txapas* ezizena betirako geratu zait, baita Urnietan umetatik ezagutzen nautenen aldetik ere, eta horrek ez dit atzeraka egiten, kontrara baizik. Euskal Herrian edozein tokietan nagoela, maiz etortzen zait jendea betiko lagunentzera kasu egitera. Halakoetan, pixka bat nahastu-

ta ibiltzen naiz, ez baitakit ezaguna dudan, ala besterik gabe, *Goenkale*-tik bakarrik identifikatu nauen.

Batera edo bestera izan, ez dakizu zein hunkigarria izaten den pertsona heldu bat, urrertzen zaizu konfiantza guztiarekin, eta irribarrea ezpainetan duela, esaten dizunean zenbat estimatzen zuten telebistako *Txapas*. Edo eta hasten zaizkidanean kontatzen, emozionatuta, *Goenkale*-k ekartzen dizkion oroitzapen politak! Hor hasten zaizkizu kontu-kontari, txikitari, etxean, bere familia osoa, amona eta guzti, nola biltzen zen telebista aurrean afal ostean, *Goenkale* ikusteko! Erritu hori galdu egin da etxeetan!

***Goenkale*-z geroztik helduentzat euskarazko fikziorik apenas egin izana salatzen zaio ETBri.**

Ez da askorik ekoiztu, egia esanda. Eta ez da izango euskal aktoreen falta dagoelako!

**Azken urtetan antzerkigintzan segi izan duzu.**

Aktore gisa egin izan ditut lan txikiak han-hemen pelikula ezagunetan, baina ez nahi adina. Suerte handiegirik ez dudala izan, esango nuke. Beharbada, publikoak nigan erreparatzea eragingo lukeen paper distiratsu hori topatu ez izanak ematen dit pena. Nolanahi ere, interpretazioaren munduan segitzeko indarrez sentitzen naiz, horretan ez daukat zalantzarik! Bestalde, 12 bat urtetan Urnietako haurrekin, helduekin eta jubilatuekin antzerkia landu izan dut, eta oso pozgarria izan da esperientzia hori niretzat. Arau konbentzionaletatik kanpo ibiltzen saiatu naiz, antzerkiaren ikuspegi nahiko pertsonaletik jo dut, eta gustura nago egindako lanarekin.

gozotegia

# arruti

Babeslea

egunean behin?

AIURRI

## 16Dko lehen irabazleak:

Benat

Maite

## IN MEMORIAM

ANTTON JAUREGI URNIETAKO EGAPE IKASTOLA

## Ixidro Elorza Gorrotxategi, gogoan

Ixidro Elorza Gorrotxategi, lau anaiaren artean gazteena, Andoainen jaio zen, 1948. urtean. Umetan osasunez ahula bazen ere, bere amari esker aurrera egin zuen, Xabier eta Prontxio anaiek diotenez. 12 urterekin, Irungo La Salle kongregazioan sartu zen, Xabier bezala. Bertan, bi urte egin zituen, eta, San Asension beste hainbeste egin ondoren, Irunera itzuli zen. Garai hartan, beste askoren antzera, Valladoliden errebalidako azterketa eginda eskuratu zuen maisu titulua. Fraile izateari 17 urterekin utzi zion, eta Bilboko Lauro ikastolara joan zen, bere anaiak utzitako lekua betetzera. Handik, Bartzelonara, auzo txiro batera; eskuzabala zen Ixidro. Barrenak eskatzen zion modura, jendearen ezina eta ahulezia iraultzen saiatu zen. Eta jendeak maite zuen... Baina bere herrira itzuli zen, besteak beste soldaduska egin beharra zuelako. Kritikoa zen edozein autoritarismorekin, eta ez zen samurra izan garai hura.

Ixidro 1975. urtean itzuli zen bere herrira, eta Larramendi ikastolan eman zituen klaseak ikasturte hartan. Bertan ezagutu zituen Urnietako Egapeko ikasleak, herriko ikastolan ezin zituztelako 6. 7. eta 8. mailak egin. Maria Pilar Iriondok, urte askoan Egapeko idazkari izandakoak, Urnietako Egapera joatea proposatu zion, eta halaxe egin zuen. 1976-1977 ikasturtean, 2. eta 3. mailetako tutore izan zen, eta horrela, jubilatuta bitarteko garaia Egapen eman zuen.

Ixidro, "gure Ixidro" bihurtu zen ikasle eta irakasleentzat, irakasle "zelebre" eta "xelebrea" aldi berean, zorrotza eta maitakorra aldi berean; txuria edo beltza, ñabardurek ez zuten lekurik beretzat, inor axolagabe uzten ez duen horietakoa zen bera.

Hogeita hamairu urte inguru egin zituen Urnietako ikastolan, eta zorrotza zen bere buruarekin eta besteekin,



Ixidro Elorza, 2017an, Egape Ikastolako irakasle aitzindariak Urnietar Prestu izendapena jaso aurretik egindako argazki-saioan. AIURRI

maite zuen irakaskuntza eta maite zituen ikasleak. Elizondo zinema azpian (gaurko Sarobe) eman zituen lehen klaseak, harik eta eraikuntza berria gauzatu zen arte. Mobilete batean etortzen zen, jator, egunero lanera, eta eraikuntza berrian logela bat ere izan zuen hasiera batean. Elektronikarekin, mekanikarekin eta eskulanarekin lotura zuen guztia gustukoa zuen eta Galileo izeneko proiektuaren arduraduna izan zen. Egapeko txikien eraikineko eraikuntzaren arduraduna ere izan zen, eta bere anaia Estanisen ferreteriara laguntzera joan behar ez zuen udara guztiak ikastolan pasatzen zituen pintatzen, altzariak mugitzen... Beti lanean.

Juerga ere gustuko zuen. Nork ez ditu gogoratzen inauterietako mozturroak, fraide moduan jantzita, buruhezur bat buruan zuela, punkiz mobiletean...? Artista zen. Hemen ikasle ohi batzuen kontakizuna: "Ixidro maisua oso serioa genuen klasean, baina handik kanpora parranda ere gustatzen zitzaion. Sanmielak hituan, eta urte hartan Ixidro festak antolatzen eta firin-farin ibili huan. Sanmielak bukatu, eta lehen klasea Euskara genian, Juxtorekin. Ixidroren kontua

atera huan eta denon artean bertso bat osatzea proposatu zian norbaitek. Hurrengo klasea, Matematika, Ixidroekin; han sartu huan serio demonio, eta han kantatu genion:

*Buenos días "Ixidro" jauna  
Ipurditik zintzilik galtzak  
Aspaldi hontan janak dituzu  
Gure baratzeko azak  
Ardoa edanda eiten dituzu  
Izugarrizko balantzak  
Sanmielatan ikusi zaitut  
musuka lurrari plazan"*

Egia esan, kafeari botatzen zion ttantta kenduta, ez zuen ezertxo ere edaten

Eskuzabala zen Elorza maisua, ingurukoei lagunduz ondo sentitzen zena. Burugorra ere bazen, hartutako erabakiez ez zen inoiz damutzen. "Zer moduz, Ixidro?" galdetutako guztietan, "oso ondo" izaten zen haren erantzuna, ondo egon ala ez.

Egape Ikastola bere bizitzaren muina izan zen, jubilatuta zen arte. Andoainen urte batzuk pasatu, eta zerbaiten falta balu bezala, Urnietara itzuli zen, bere ikasle izandako Ainhoaren pentsiora, zelatari, ikastolatik ehun metrotara.

Herriarekiko lotura ez zen hor moztu, zeren eta ikastola utzi ondoren ere antzele moduan aritu baitzen Urnietako historia taularatu zuten hiru ikuskizunetan: Marizulo, Urnieta 59 eta 1936, azken hori Gerra Zibilaren gainekoa. Ixidrok bazuen antzezteko dohaina, eta haren paperak ez ziren nolana hikoak izaten; horren adibide, Erdi Aroko inkisidorearena azpimarratzekoa da.

Uztailaren 26an utzi bagintuen ere, datorren ostegunean, hilak 24, egingo dugu elizkizuna, 19:00etan, Urnietan. Gonbidatuta zaudete jaiotzez andoindarra baina bihotzez urnietarra genuen "gure Ixidro" agurtzera.

**Oharra:** Urriaren 24an Ixidroren omenezko elizkizuna izango da Urnietan, 19:00tan hasita.

## KOMUNITATEA

KONTSEILU SOZIALISTA BURUNTZALDEA

## Iraganean bezala, gaur ere, mugitu dadin Igara

Leitzaran eta Oria ibaiek bustiriko herria izanez, mendeetan zehar igara edo errotaz josita egon ziren Andoain eta bere inguruak. Irina eta burnia lantzen ziren, batik bat, eraikuntza haietan. Hala, uraren indarrarekin gogoz mugitzen ziren eraikin horiek andoaindarren egunerokoa erabat moldatu zuten. Egun, ez, egun ez da ia errotarik zutik inguruan, eta dauden gutxiek, aztarna baliotsu bat izateaz gain, ez dute beren sorrerako funtzioa betetzen.

Iraganean igarak mugitzen ziren indarrak ireki zen Igara espazioa iazko abenduan. Urte luzez hutsik egon ostean, hamarnaka lagunengaitasun kolektiboari esker espazio berri bat jaio zen Andoaingo erdigunean. Mugimenduan den espazio berri bat. Hainbat helbururekin jaio zen Igara: langileen berehalako beharrei erantzuteko bitartekoak garatzea, esplotazio eta zapalkuntza egoerak gainditzeko lanean diharduten proiektuei espazio bat ematea eta hori gorpuztuko duen komunitate bat ehuntzea.

Bertan gauzatutako ekimenak askotarikoak izan dira. Adibidez, lehen hilabeteetan, elkartasun bilketa ugari egin dira (ikasmaterialarena berriki, neguko manta eta arroparena urtarrilean, edota jostailuena gabonetan). Horiei esker, eskualdeko hainbat norbanakori behin-behineko laguntza txiki bat eman ahal izan zaie. Bestalde, berehalako erantzun horietatik harago, langileon autoantolakuntza sustatzeko espazioek ere lekua izan dute Igaran. Horren adibide dira Etxebizitza Sindikatua eta Laneko Autodefentsa Sarea, esaterako. Hainbat pertsonari eman zaie etxebizitza zein lan arloko aholkularitza, eta etxejabe zein nagusien gehiegikeriei aurre egiteko



Igara espazioa. GEDAR


baliabideek beren fruituak eman dituzte.

Bestalde, kultura eta aisialdirako doako eskaintza emate aldera, proiektzio, hitzaldi edo bakarrizketa ugari egin dira. Aurtengoan, bide horri eutsiz, guztiontzat eskuragarri egongo den doako kirol eskaintza martxan jarriko da. Hori horrela, Pilates eta Muay Thai doako saioak eskainiko dira astero. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero, 643 634 790 telefonora edo buruntzaldea@kontseilusozialista.eus helbidera idatzi besterik ez dago.

Igara espazio arrunt bat baino askoz gehiago da. Langile antolatuok erabilerarik gabeko espazio huts bat interes kolektiboan mesedetara jartzeko hautua da. Pobretze garaiotan, langileon bizi baldintzak modu antolatuan defendatzeko hautua. Elkar joka nahi gaituzten honetan, jarrera erreazionario eta arrazistei aurre egingo dien komunitate bizi bat eratzekeko hautua. Esaera zaharrak dioen bezala "urik gabe, igara ez dabil", beraz, Andoaingo eta Buruntzaldeko herritar guztiei espazioan parte hartu, honi bizi eman eta beren ekarpena egin dezaten eskua luzatzen diegu.

Iraganean bezala, gaur ere, mugitu dadin Igara.





Eli Pagola eta Aitor Mendiluze Unanibin, aurreko larunbatean. AIURRI

## Bertsoak eta bizikleta, herrigunean hasi eta Otietaraino

"Bertsokleta" ekimena abian jarri du Leitzarango Bisitarien Etxeak. Pagola eta Mendiluze aritu ziren kantuan

### Erredakzioa ANDOAIN

Otietako Leitzarango Bisitarien Etxeak antolatuta, "Bertsokleta" ekimena egin zuten aurreko igandean. Izenari jarraiki, bertsoak eta txirrindularitza uztartu zituzten. Estreinakoz egindako irteeran kantuan aritu ziren Ereñotzuko Eli Pagola eta Sorabillako Aitor Mendiluze. Goikoplazan elkartu, lehen bertsoak bota eta Trentxikiko bidea hartu zuten, Otietarantz abiatzeko. Bidean, hainbat to-

kitan, geldialdiak egin zituzten. Hala nola Auzokalteko zubian, Bertxingo iturrian eta Unanibiko zubian. "Sorgiñen zubia" izena hartu du historian Unanibiak, eta horri heldu zioten azken bertsoaldian.

Mendiluzek aukerak zabaldu zituen: "Zergatik edo nondik datorren ez nago oso seguru, baina, hala ere, asma dezagun aitzakia ederra dugu". Azken bertsoaldiaren bideoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago.



Bizikleta eta bertsoa uztartu zituzten aurreko larunbatean Andoainean. AIURRI

# Herri libre bat.

Elkarrekin. Erabaki.

Bagara. 360°ko Euskal Herria.

### Zer da Bagara?

360°ko Euskal Herria erakustea helburu duen ekimena da. Erabakitzeko eskubidearen eta herri nortasunaren aldeko bideen bidez, emankizun erraldoia osatuko dugu, maratoi hibrido baten gisa.

### Noiz egingo dugu?

2024ko azaroaren 16an. Goizean hasi eta iltzean bukatuta. Horretarako ehunka bideoz gain, Euskal Herriko lau hirian egingo ditugun zuzeneko ekitaldiak uztartuko ditugu.

### Nola parte hartu?

Helburua, tokian tokiko ezugarrietatik abiatuta Euskal Herriarekin zerk konektatzen dugun erakustea da. Zure herri, eragile edota ekimenak Euskal Herriari egiten dion ekarpena graba dezakezue!

### Erakusleiho izan nahi?

Maratoi Euskal Herriko erakusleho izan nahi du eta horretarako hausnarketa bat proposatzen ditugu:

- Zure herri, eragile edota ekimena nola konektatzen da Euskal Herriarekin? Zerk ekarpen egiten dio?

### Bideoetan zer?

Euskal Herriaren osotasuna irudikatu nahi dugu, gure herrako errealitate ezberdinak barnebiduz. Herri egiten gaituzten edo herri nortasunaren aldeko ekarpena egiten duten ideak jasoko ditugu. Elkartzen gaituzena erakusteko unea da!

### Zer erakutsi?

Batu lagunak, eragileak, herri-ideak... eta bideo bat osatu (2 min) eta egin ekarpena Euskal Herriari. Mota askotako adierazpenak izan ditezke, kulturalak, artistikoak...

- Euskara
- Burujabetza
- Herri harrotasuna
- Kultura
- Kohesioa
- Garapen ekonomikoa
- Kirola
- Lurra
- Berdinotasuna
- Bizikidetzak
- Anzitasuna
- ...

### Nola grabatu?

- Horizontalean grabatu.
- Full HDn grabatu, 1080P formatuan.
- 30 frame segunduko.
- Irudia egonkorra eta enkoadraketa ona.
- Soinua zaindu.
- Erabilera libreko abestiak erabili.

### Nora bidali?

- bideomaratoi@gureesku.eus
- Urriaren 31a da bideoak bidaltzeko azken eguna.
- Idolarekin jarri gurekin harremanotan.

Jasoko ditugun bideo guztiek zuzeneko emisio bat osatuko dugu, 360 graduko Euskal Herria irudikatuz!





Ostegun gaueko auzo antzerkian parte hartu zuten auzotarrak. AIURRI

# "Xoxopris", aurtengo gaia

Ilaski Serrano eta Antton Telleria aurkezleen lana antzezten aritu ziren herriko Peio martin eta Beñat Arruti. "Xoxopris" izeneko lehiaketa gidatu zuten, hiru talde lehian jarrita: baserritarrak, txinatarrak eta fitness zaleak

## Erredakzioa URNIETA

Gau Sorpresa hitzordua ageri da, urtero, Xoxokako Jai Egitarauan. Bestela esanda, auzotarrek ondotoxo dakitenez, auzo antzerkia da. Tradizio handikoa da auzotarren aurrean egindako antzezpenean, denborarekin han eta hemen desagertu dena. Xoxokan, ordea, tinko eusten diote eta oraindik orain herrikideen barre-algarak sortzen dituzte. Parodia eta bat-batekotasuna dira antzezlaren oinarri eta

gaiak askotarikoak dira. Aurten, lehiaketa itxura izan du antzezpenean. "Xoxopris" izenaren barnean, baserritarrak, txinatarrak eta fitness zaleak lehian jarri zituzten Euskal Telebistako aurkezle ezagunen imitzaileak aurkezle lanetan jarrita.

Ezer ez eta festa, hori izan ohi da Gau Sorpresa. Bertaratzen denarentzat ezagunegandako antzezlana gozatzeko aukera izaten da, asteburu luzeari irribarrez ekiteko modua.



**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Xoxokako  
Jaiak**

**ATAL BEREZIA**

**aiurri.eus**



Barrez lehetzeko moduko ikuskizuna egin zuten auzotarrek. AIURRI



Askotariko jolasak egin zituzten emanaldian. AIURRI





Erronka amaituta, taldeko argazkia atera zuten xoxokarrek eta asteasuarrek. AIURRI

# Asteasuko gazteak gonbidatu zituzten lehiara

Jende andana bildu zen Xoxokako plaza nagusiaren bueltan, auzotarrek asteasuarren aurka zuten kirol-erronka ikusteko gogoz. Herri-kriolak eta crossfit-a uztartu zituzten hitzorduan. Animoak eta txaloak ziren nagusi, probek iraun bitartean

## Erredakzioa URNIETA

Erronka bota, eta irabazi. Apustua izan zen, ostiral arratsaldean, Xoxokako gazteen eta Asteasuko artean. Harri-jasotzea, ingudea, trontza, txingak, *clean and jerk*, *burpee*-ak sagar-bilketak, lokotxak... Herri-kirolak eta crossfit ariketak uztartu zituzten erronkan. Bada, etxekoak aise nabarmendu ziren gonbidatuen aurrean, hasierako probetan atzetik joan arren.

Jendearen arreta erakarri ohi duen hitzordua da ostiral arratsaldekoa. Joan den urtean, esaterako, auzokoen artean egin zuten kiro-apustua. Aurten, ostera, Aiztondokoak izan ziren gonbidatu bereziak.

Honako hauek osatu zuten xoxokarren taldea: Beñat Goenaga, Xabi Urdanpilleta, Julen Osa, Uxue Osa, Uxue Manterola, Izaro Bengoetxea, Eneritz Usarralde, Eider Manterola, Lander Cia, Ibai Usabiaga, Aritz Lizaso, Garazi Usabiaga eta Mattin Usarralde.



Ibai Usabiaga, zakua bizkar gainean. AIURRI



Uxue Osa, gurpila altxatzen hasteko abisuaren zain, adi. AIURRI

## Etorkizun handiko aizkolarien erakustaldia

Malen Barrenetxea-Igoien Pikabea eta Laiene Pikabea-Unai Etxeberria "Osinalde" bikoteen eskutik



Malen Barrenetxea, Laiene Pikabea, Igoien Pikabea eta Unai Etxeberria "Osinalde".



Pikabea eta Barrenetxea, lehian. AIURRI



Osinalde eta, atzean, Barrenetxea. AIURRI



Urnieta  
udala





Goikaldean, ezker-eskuin: Iraia Narvarte, Aiora Garcia, Sara Intza, Anitz Jauregi, Maider Isasti, Eider Garcia, Lorea Manterola, Maialen Aranburu, Natalia Zurita, Ane Elgarresta, Hayat Serano, Araia Garcia, Aiara Martin, Naroa Exposito eta Yulene Holgado. Behean, Kyra Marruedo, Alena Cortes, June Barragan, Saiuri Franco, Maider Isasti, Lide Lizeaga, Nahia Iñurrita, Eider Garcia, Iratxe Del Castillo eta Oihane Vilches. AIURRI

# Erakustaldi berria

Festa-sorta luzea egokitu da aurten Urnietan, hain justu ere, Sanmielen aurreko asteburutik hasi eta Xoxokako jaien igandera bitarte. Bada, egitarau guztietan izan du txokoa Egape Dantza Taldeak



Jantzi garaikideekin egin zuten erakustaldia. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA

Bada Xoxokako festetan sekula huts egiten ez duen hitzordua: Egape Dantza Taldearen emanaldia. Eguraldia lagun, igande goizez igo ziren dantzariak Goi-buru aldera, jaien azken egunari hasiera ematera.

Hala, aurreko egunetako parrandetan festarako gogo guztia xahutu ez zutenek dozena erdi piezako ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten, doinu tradizionalagoetatik hasi eta melodia modernoagoetara bitarte.

Aurten, orotara, 20 kidek egin dute erakustaldia Xoxokan: DBH 3-4. mailako ikasleak; baita Baxilergoan daudenak ere. Nork bere piezak dantzatu arren, amaierako dantza elkarrekin egin zuten, emanaldia biribiltzeko. Txalo zaparrada batekin jaso zituzten ikus-entzuleek.



Publikoaren harrera beroa jaso zuten dantzariak. AIURRI



Azken urteotan, ikuskizun bikainak egin ditu Egape Dantza Taldeak. AIURRI





Auzotarren arteko desafioan aritu ziren partaideak, taldeko argazkian. AIURRI

# Azken txanpa, gazteen arteko desafioa eta guzti

Asteburuko parrandak gainetik kendu gabe, batek baino gehiagok auzotarren arteko desafioan parte hartu zuen. Igande arratsaldeko ekitaldi esanguratsua izan zen, sagardo eta pintxo dastaketarekin batera

## Errerdakzioa URNIETA

Hego haize ukituko asteburua izan zen aurrekoa eta, aukeran, kirolean aritzeko bero handia egin zuen. Igande arratsaldean, tenperatura altuak nagusi izanik ere, dena ematen aritu ziren auzoko gazteak. Izan ere, asteburu osoko parrandak gainetik kendu gabe, batek baino gehiagok desafioan parte hartu zuen.

Atsedenen faltan, olanapera hurbildutakoan animoak bitaminaren pareko bilakatu ziren. Giro ederrean aritu ziren txingak hartuta edo koskol-apustuan. Orekari eusteko jolasak dibertigarriak izan ziren, bestalde.

Kirol erakustaldia amaitu orduko, auzoko sagardoaz gozatzeko aukera izan zen. Eta edatekoa osatzeko, nola ez, pintxo

goxoak. Igande iluntzean eman zioten amaiera Xoxokako jaiei. Hitzordu gehien argazki-bildumak eta bideoak ikusgai daude Aiurri.eus webgunean, Xoxokako jaiak biltzen dituen atal berezian.

Igandekoa igarota, amaiera eman zaie Urnietan hiru asteburu jarraian izandako ospakizun-sortari.



Une dibertigarri ugari bizi izan zen igande arratsaldean. AIURRI



Sagardo dastaketa, ezinbestekoa azken jai egunean. AIURRI



Sagardoa eta pintxoa dastatzeko aukera paregabea izan zen. AIURRI



Auzoko sagardoa dastatzeko aukera ederra da. AIURRI





Gau Beltzako eragile ia guztiak elkartu ziren astearte arratsaldean, Goikoplazan. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Arimen Gaua, azaroaren lehenaren bezperakoa, iristear da Andoainera. Euskaltzaleen komunitateak hirugarrenez antolatuko du Gau Beltza, eta aurreko bi edizioen ildotik jarraituz gero, jendetza erakarriko duen ospakizuna izango da. Manuel Larramendi Kultur Bazkunik eta Aiurritik abiatu zen ekimena, baina lankidetzarik gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea. Auzolanean egiten da Andoainen Gau Beltza, laguntza eskatu orduko laguntza bikaina ematen duten herri eragileei esker. Astearte arratsaldean eragile gehienak elkartu ziren Goikoplazan, taldeko argazkia ateratzeko. Bertan ziren "Lebi" Etxeberrieta plazan aterako duten Lebiton konpartsa kideak, txokolatea egin eta banatuko duten Batzokiko kideak, Beldurraren pasabidea antolatzen ari diren Irun-

# Auzolanaren bidetik, iristear da Gau Beltza Andoainera

Lebiton, Maizorri eta Urki taldeak; Keinu, Urrats eta Salkin elkarteko dendariak; Kotoi, Irunberri, Peña Santa Krutz eta Batzokia elkarteak; Aiurri eta Larramendi Kultur Bazkuna; Andoaingo Udala, Bastero Kulturgunea eta Gazte Lokala... denen laguntza premiazkoa da

berriko ordezkariak, taloak egiteko elkartea uztearekin batera taberna zerbitzua eskainiko duen Kotoi elkarteko zuzendari-zako kideak, kapelak eta txartelak salduko dituzten Keinuko lagunak, Andoaingo Udaleko ordezkariak eta, nola ez, Aiurriko eta Larramendi Bazkuneko kideak. Agenda arazoak tarteko argazkira ez ziren iritsi Salkineko, Urkiko eta Maizorriko ordezkariak. Baina haiek ere Gau Beltzaren parte izango dira.

## Hirugarren edizioa

Gau Beltza lehen urratsak ematen ari da Andoainen eta dagoeneko haur eta gaztetxo askoren buruan dagoen ospakizuna da. Ezin bestela izan, zirrargarria izateko osagai ugari dituelako urriaren hogeita hamaikak: txokolatea, antzeppen misteriozua, dantza emanaldia, kalejira beldurgarria, beldurraren pasabidea,



## Udalerrri osora zabalduko da



Euskal kutsuko mozorro ederrak ikus daitezke Gau Beltzan. AIURRI

**Jaiaren hasierako antzezpena eta dantza, Goikoplazan** Urriaren 31n, ostegunarekin, 18:00tan emango zaio hasiera Gau Beltzari, aktore-taldearen eta Urkikoen eskutik.



Aurreko bi urteetan bezala, "Akerrak Okerrak" kalejira ibiliko da kalez kale.

**Kalejira, Goikoplazatik Etxeberrieta plazara** Txokolatea eta bizkotxoa jan eta gero, eta antzezpena eta dantza-emanaldia amaituta, "Akerrak Okerrak" kalejira abiatuko da Goikoplazatik.

zezen-suzkoa... Ekitaldiz beteriko da, emozioz emozio bizitzeko modukoa. Ospakizunak kalean egingo dira, udalerrri osora zabalduko direnak. Goikoplazan abiatuko da jaiak, Kale Nagusiko Iruberrin ipiniko da Beldurraren pasabidea eta Etxeberrieta plazan amaituko da ospakizuna.

### Jatekoa eta edatekoa

Txokolate-beroa dohainik emango da Goikoplazan, arratsaldeko 18:00tan hasita. Glutenik gabekoa da txokolatea eta hala eskatzen duenak ere glutenik gabeko bizkotxoa jan ahal izango du. Etxeberrietan banatuko diren taloak, berriz, urriaren 21etik aurrera 5 euroko prezioan salgai izango dira Urratsen eta Keinun.

### Boluntario askoren lanari esker

Kultur eta gizarte mailako elkarteen laguntzaren parekoa da herriko euskaltzaleek ematen dutena. Jaiak tamaina handia hartu du eta behar bezala erantzuteko boluntarioen laguntza garrantzi handikoa da. Txokolatea banatzen, taloak egiten, bide-segurtasuna zaintzen... Herrikide askoren laguntza behar da. Antolatzaileek deialdi berezia luzatu dute arratsaldeko tarte batean laguntza puntuala eman dezakeenak izena eman dezan. Beldurraren pasabidearen sartu-irteeren zaintza, Goikoplazako eta Etxeberrietako ekitaldien zaintza-lana... Laguntzeko prest dagoenak izena eman dezake datozen egunetan, e-posta idatziz (andoain@aiurri.eus) edo whatsapp bidaliz (619 16 35 37). Behin hori eginda antolatzaileak jarriko dira laguntzaileekin harremanetan.

Gauzak ondo, hirugarren Gau Beltza ere sekulakoa izango da.

## Txokolatea, gaztainak eta taloa



Txokolate beroa jateko aukera izango da Goikoplazan. AIURRI

**Txokolatea, Goikoplazan** lazko aurrikuspenei eutsiz, 500 lagunentzat txokolate beroa prestatuko dute Batzokiko lagunek. Glutenik gabeko bizkotxoak izango dira, hala eskatzen duenarentzat.



Kotoi elkarteko sukaldean prestatzen dira taloak. AIURRI

**Talo jatea eta taberna zerbitzua, Etxeberrieta plazan** Kotoi elkarteari esker, bertan prestatzen dira taloak. Elkarteak berak barra zerbitzua eskainiko du kanpoaldean.

# GAU BELTZA

URRIAK 31

ANDOAIN

## ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU

Gau Beltza auzolanean antolatzen ari gara Andoainen. Goikoplazan, Kale Nagusian eta Etxeberrieta plazan bide-segurtasuna bermatzeko boluntarioak behar ditugu. Laguntza emateko prest bazaude, idatzi:

e-posta: andoain@aiurri.eus  
whatsapp: 619 16 35 37










## Beterri-Buruntzako bidezidorretan barrena ibiltzeko eguna

XVI. ediziora iritsi da "Buruntzaldeko ibilbideen eguna". Igandean izango da, goizeko 08:00tatik 14:00tara

### Erredakzioa USURBIL

Belardiak, basoak, bidexkak, baserriak, karobiak, baselizak... Orotara, bost ibilbide dakartza aurtengo eskaintzak. Dagoeneko, herrietan, ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, pro-

filak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zutoinak. Aipatutako seinale horiek guztiak herrikan banatuta daude.

**ANDOAIN-LASARTE-ORIA.** Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km.  
**ANDOAIN-URNIETA.** Koloreak, urdina eta berdea; 4,8km.

**ANDOAIN-USURBIL.** Koloreak, urdina eta laranja; 14,9km.

**LASARTE-ORIA-URNIETA.** Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km.

**LASARTE-AGINAGA.** Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9km.

### Itzulera, busez

12:00etan aterako da lehena Aginagan, eta azkena 14:00etan, udalerrri bakoitzeraino.



Usurbilen egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpena. UDALA



EMAKUME MASTER CUP

## Garaile, bi mila ikusleren aurrean

Hiru Hiriburuak torneoko finala Gasteizko Ogetan jokatu zen, frontoia lepo beteta zegoela. 2.200 pilotazaleen aurrean irabazle izan zen Nora Mendizabal andoaindarra Goiuri Zabaletarekin bikotea osatuz. Txapela jantzu zuten, 2.200 lagunren aurrean, Mirian Arraiza eta Enara Gaminde 22-16 irabazita. Ez du berehalakoan ahaztuko Gasteizen bizi izandakoa.



## Txirrindularien manifestazioa

Igandean jendetza elkartu zen Donostiako kaleetan, Gipuzkoan bereziki txirrindulariek pairatzen duten egoera salatzen. Haur eta gaztetxo mailako denboraldiari hasiera eman ezinik dabilta, Trafiko zuzendaritzarekin duten liskarra tarteko. Federazioko zuzendaritzak, gainera, dimisioa eman du. Ez da giro, une honetan, txirrindularitzan.



Leizaran taldea. AIURRI

## Euskal Ligako bi taldeak garaile izan ziren

Leizarango senior mailako neskek eta mutilek etxetik kanpo garaipena eskuratu zuten

### Erredakzioa ANDOAIN

Leizaran Lanbroa tabernak etxetik kanpo ekin dio denboraldiari eta lehen partidaren garaipena eskuratu zuen. Zuazo taldearen kantuan izan zen (21-23). Mailari neurria hartuta dio taldeak, ez baitira berriak Euskadiko Ligan. Mutilen kasuan, aldiz, aurtengandik aurrera jokatu zuten ligako bigarren partida. Lehenengoan alde handiz galdu zuten, eta bigarren jardunaldian iritsi da lehen garaipena. Alkar taberna Corazonistas taldearen kantuan lortu zuten garaipena (24-29). Asteburuan Muskiz taldea hurbilduko da Allurralderra.



Ainara De Migel, Ainara Leibar eta Maria Rengel, elastikoa probatu berritan. AIURRI

## Txirrindandoain taldeak irteera antolatu du urriaren 26rako

Emakumeen artean bizikletan ibiltzeko joera sustatzeko Txirrindandoain Kirol Elkarteak sortu berria dute

### Erredakzioa ANDOAIN

Indarrean dabilta ekimenak antolatu nahian. Gertuena, oraingoz, irteera irekia izango da, urriaren 26rako prestatu dutena. Zumea plazatik irtengo da, 09:30ean eta Abaltzisketara joan-etorria egingo dute. Itzulera,

parte-hartzaileek hamaiketakoaz gozatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek herritarrek irteeran parte hartzeri gonbidatu dituzte "mailakako taldeak egingo dira eta erritmoa taldeek markatuko dute. Ez dugu presarik!".

## Pelontxu ez dago bakarrik

Beñat Fernandez "Pelontxu" andoaindarra Alcañizen (Teruel) motoziklismoa probatu lehian zuten aurreko asteburuan, eta bietan seigarren postua eskuratu zuen. Jardunaldi osoan biziki eskertu zituen hainbat andoaindarrek harmailetatik bidali zizkieten animoak. Argazkian, "Pelontxu" Andoaindik Alcañizera joan ziren jarraitzaileekin ageri da.





ANDOAINGO EUSKERA,  
BIHOTZETIK KALERA!

# AZOKA

Azaroak 9 ★ ANDOAINGO GOIKOPLAZAN

## Gastronomia eta artisau azoka + TONBOLA

Argazkia: J. I. Unanue

11:00:

**Azoka irekiera**

12:30:

**Aire Eire**  
taldearen  
kontzertua

16:30: Toka  
txapelketa

18:00: Irrintzi  
txapelketa

19:00:  
**Malkogarriyak**  
taldearekin  
erromeria

Egoitza berria eskuratzeko diru-bilketa



ANDOAINGO  
EUSKERA,  
BIHOTZETIK  
KALERA

**Zatoz  
tonbolan  
parte  
hartzera!**

Otorduak, eskapadak,  
talasoterapia saioak, abentura,  
kirola, literatura, musika,  
kontzertuak... eta askoz gehiago!

EHUNDAKA SARI  
ZOKETAN!

*Txomin  
Parrillaren  
pintxoak,  
Gaztañagako  
sagardoa eta best  
hainbat urdaila  
berotzeko!*

Antolatzailea:



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna  
harrera@larramendibazkuna.eus

Babesleak:



ANDOAINGO UDALA



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## DEIALDIA

## ANDOAIN Gau Beltza

Talo-jatea izango da, aurreko urteetan bezala, Etxeberrieta plazan. Txartelak salgai izango dira Urratsen eta Keinun, datorren astelehenean hasita. Txartelaren prezioa 5 eurokoa izango da. **Urriaren 21etik aurrera.**

## BERTSOA

## GIPUZKOA Txapelketa

Unai Gaztelumendik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetan abestuko du. **17:00, Erreterria. Urriak 20, larunbata.**

## ERAKUSKETA

## ERAKUSKETA Arrakala

Berrerabilitako lauzez, margoz eta buztinaz osatutako bilduma egin du Alaia Gaztelumendik. **18:30, Irekiera-ekitaldia. Urriak 25, ostirala.**

## OSPAKIZUNA

## ANDOAIN Irri jai

Kulturgunean eta Plaza Morean Irri aldizkariaren urteurrean ospatuko dute, Porrotz eta Marimotots eta herriko hainbat eragileren parte-hartzearekin. Besteak beste, herriko musika eta dantza eskolak. **Bastero eta Plaza Morea. Urriak 27, igandea.**



Aldapeko Basque Latin jazz musika taldea. ALDAPEKO

## ANDOAIN Kontzertua

Aldapeko Basque Latin Jazz taldea zuzenean ariko da, ostiral honetan. **Urriak 18, ostirala. 19:30, Bastero. Sarrera: 6 euro.**

## LEHIAKETA

## ANDOAIN Argazki-lehiaketa

Andoaingo Udalararen 2025eko egutegia osatzeko lehiaketa. Gaia: "Merkataritza Andoainen". **Lanak aurkezteko epea: Urriak 31.**

## ANTZERKIA

## ANDOAIN Egun zoragarriak

Pabilioi 6-Gazte Konpaniaren antzezlan. Diotenez, komedia "sentsual", ganberro eta sentimentala da. **19:30, Basteroko auditorioa. Urriak 25, ostirala.**

## URNIETA Aurre-estrenaldia

"Alguien volo sobre el nido del cuco" lan ezagunaren egokitzapena egin du Nueve teatro konpainiak. **19:00, Sarobe. Urriak 26, larunbata.**

## URNIETA Aurre-estrenaldia

"La Cantante Calva" antzezlan ezaguna, Donostiako antzerki talde ezagunaren eskutik. **19:00, Sarobe. Urriak 27, igandea.**

## OSPAKIZUNA

## ANDOAIN Gau Beltza

**18:00, Goikoplazan hasita. Urriak 31, osteguna.**

## Hamar hobekuntzen artean hiru hautatzeko aukera dago

2025eko Udal aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratzeko parte-hartze prozesua zabalik da Urnietan

## Erredakzioa URNIETA

Udalak gonbita luzatu du: "Iritsi da une erabakiorra, zein hobekuntza egin erabakitzekoa, eta berriro, urnietarrak izango dira protagonistak". Urnietako 16 urtetik gorakoek botoa eman

dezakete urriaren 27a baino lehen. Bideak ohikoak dira: kutzak, postontziak, webgunea eta app-a. Gainera, urriaren 25ean informazio karpa bat ipiniko da. Goizean, Etxeberri plazan eta, arratsaldean, San Juan plazan.



Segurado eta Mercader. AIURRI

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Joker 2


Urriak 19, lar. 19:30.  
Urriak 20, ig. 19:30.  
Irailak 21, astel. 17:00, 19:30.

## Liztor kapitaina

Urriak 19 eta 20. 17:00.

## Soy Nevenka

Urriak 26, lar. 19:30.  
Urriak 27, ig. 19:30.  
Irailak 28, astel. 17:00, 19:30.



## SINOPSISIA

## Joker 2

**Zuzendaria:** Todd Phillips. **Aktoreak:** Joaquin Phoenix, Lady Gaga, Brendan Gleeson, Catherine Keener, Zazie Beetz, Jacob Lofland, Harry Lawtey... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, Thrillerra. **Iraupena:** 118 m.

## Joaquin Phoenix eta Lady Gagak Jokerren bigarren filman

Kaosa sortu ondoren, Arthur Fleck Arkham Asiloan sartu dute epaiketaren zain, Jokerren paperean burututako krimenengatik. Bere nortasun bikoitzarekin borrokan ari den bitartean, Arthurrek benetako

maitasunarekin topo egiteaz gain, bere barruan beti egon den musika ere aurkitzen du.

Udazkeneko estreinaldien artean ikusmin handiena piztu duen filma da, zalantzarik gabe.

**THE 80'S Party** **Urriak 19**  
*Andoain*

NAFARROA PLAZAN	DJ 18:00 MUSIC 19:30
SANTA KRUTZEN (ERMITA INGURUAN)	DJ 19:30 MUSIC 21:00
ZUMEA PLAZAN	DJ 21:00 MUSIC 23:00

**S2 SALKIN**  
bertatik bertara





WIKIMEDIA / JOXEMAI

## Muliskora bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, bisita-gidatuak antolatu dira Gipuzkoako hainbat udalerritan. Urnietan, Mulisko Gaina aukeratu dute, aurtengo ediziorako. Honatx, aurkezpena: "Jentilen hilerriraino bidaiatu nahi dugu, gure iragana orainaldiarekin non lotzen den eta gure kultura non loratzen den ezagutzeko". Igandean, 10:00tan abiatuko dira Besabitik.



AIURRI

## Palestinaren aldeko hitzorduak

Aurreko astean Gernika-Palestina ekimenak deialdia iragarri zuen: "Genozidioa geldiarazteko eta konponbidea aldarrikatzeko dei egiten diogu euskal jendarteari, urriaren 21ean, herri guztietako udaletxeen aurrean 19:00tan izango diren kontzentrazioetan parte hartzera". Andoaingo Goikoplazan eta Urnietako San Juan plazan, beraz, hitzordu bana deituta dago.



Udal Liburutegia. AIURRI

## Asteburueta eta jaiegunetan, zabalik

Andoaingo Udal Liburutegia zabalik izango da, goizeko ordutegian, larunbat honetan hasita

### Erredakzioa ANDOAIN

Asteburu honetatik hasita, Andoaingo Udal Liburutegia egun berezietan ere zabalik izango da. Izan ere, asteburueta eta jai egunetan zabalitzen hasiko dira. Larunbat honetan hasita, goizeko 09:00tan zabalduko dituzte ateak eguerdiko 13:00ak arte.

Liburuen kontsulta, maileguak eta prentsaren irakurketa egin ahal izango dira, baita asteburueta ere. Udalak, modu horretan, herritarren proposamenari bidea eman dio: "Eskaera 2022ko aurrekontu parte-hartzailetan agertu zen. Hala, asteburu honetatik aurrera errealitate bilakatuko da".

## KOMUNITATEA

### ERNAI ANDOAIN

## Elkartasun jaialdia, larunbat honetan

Larunbatean, urriak 19, Buruntzaldeko gazte independentistok elkartasun jaialdia egindo dugu herrian, Andoainen.

Mozal Legea aplikatuta 290.500 euroko 133 isun jaso genituen Eusko Jaurlaritzako segurtasun sailaren eskuetatik, gure jardun politikoa ekonomikoki itozteko helburu argiarekin.

Honek gure lanean berresteko baino ez digu balio! Beraz, egun osoan antolatutako egitarau zabalean parte hartzera dei egiten diegu Buruntzaldeko herritarrei! Gazte borroka geldiezina delako!

### Urriak 19, larunbata. Egitaraua:

- 11:00** Hitzaldia Gaztetxean: Euskal Herria independentziara, zergatik eta zertarako? June Iartza eta Aritz Lopezen eskutik.
- 14:30** Bazkaria Bekoplazan: Bazkaloste musikatua Anuk eta Elenekin musikarien eskutik.
- 18:30** Manifestazioa Goikoplazatik abiatuta: "Bat eginez independentziara!". Ostein, trikipoteoa.
- 22:00** Kontzertuak Gaztetxean: Ameba, Pertz eta Rebel Noise. Ondoren DJ La Fulana.



Andoni Alvarez alkateak asteartean prentsa-agerraldia deitu zuen. UDALA

## Andoaingo tasa eta zerga berriak plenoan aztergai

KPIa igotzea proposatu du Udal Gobernu taldeak. EAJ-PNVk dagoeneko baiezkoa iragarri du

### Erredakzioa ANDOAIN

Oro har, KPIaren arabera eguneraketa izango da (% 2,6). Tasa eta prezio publikoen proposamena eztabaidatu eta bozkatzeko plenoa ostegun honetan izango da, urriak 17, arratsaldeko 19:00tan hasita.

### Igoera zaborretan

Europatik datorren zuzentarau bat aplikatu behar da, zeinaren arabera, Udal-hondakinen bilketak udalen diru-kutxetarako "zero kostua" izan behar duen. Egund, Andoain zerbiztu horrek 485.500 euroko defizita suposatzen dio. Beraz, gobernu taldearen iritziz, "% 50 igo beharko da datozen urteetan. Familiei erraztasunak emate aldera, igoera modu progresiboan ematea proposatu da: %25 2025ean, eta gainerako %25a 2026an. Hala, egund, familia arrunt bat egungo 26,05 eurotik 32,56 euro ordaintzera igoko da datorren urtean".

### EAJ-PNVren babesa

Gehiengoz onartuko da, EAJ-PNVk dagoeneko babesa iragarri duelako: "Uste dugu egokia dela % 2,6ko igoera orokorra, inbertsio-beharrei baldintza hobetan aurre egin ahal izateko, eta Udalaren ahalmen ekonomiko nabarmen hobetuko delako".





# GAU BELTZA

ANDOAIN

URRIAK 31, OSTEGUNA

Eta zuek?  
Zer ospatzen  
duzue?

- 18:00 Txokolate-jatea, antzezpena eta Urkiren emanaldia, Goikoplazan.
- 18:30 Beldurraren pasabidea, Kale Nagusian.
- 19:00 “Akerrak okerrak” kalejira, Goikoplaza-Etxeberrieta artean.
- 20:15 Talo-jatea, edariak eta musika, Etxeberrieta plazan.
- 21:00 Zezen-suzkoa, Etxeberrieta plazan.

